

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA



Juan Garmendia Idazlea. (AIDA argazkia).

Euskal gizon jator au ez da nolanaikoa. Oraitxe bertan euskal esku langintzari buruz bere laugarren liburua argitaratu du. Oraindik aurretan bertan bere irugarren liburua ikusten genuen eta bertan oso gutxira urena dugu. Osk esan nai du idazle

JUAN GARMENDIA ta "Euskal Esku Langintza"

ku langilleak biltatu ta gizon oien aberastasuna ta trebetasuna azaldu. Oraingo orotan geienak naparrak ditugu; Luzaiden ko Pedro José Auzki "eskalapinella", Donatzebe ko Enaebio Arregi "goantegilla" eta Astiz ko Jose Migel Astiz "saskigilla". Lenengo, erriak agertzen dizkigu; maitasunez eta margoz inguratzen ditu, gero gizonak beren berexitasunaz jabetuak azaltzen dizkigu, azkenean eskularen berriak aitu arte ematen salatzen da. Teknika berexi oik nolakoak diran ikusteko, ez bakarrik itzak, baita marrakiaz eta argazkiak argitaratzen ditu. Orrelako liburuak daukagun gizonak eta erri txikien balioa zefien aundia dan, bear beze la ikusten laguntzen digute.

Nor degu idazlea? Gizon sendoa, euskaldun benetakoa ta argia. Berex Tolosa-rra da. 46 urte ditu. Barrenean sortzen zitzaiona esan bearra zualako, ogei ta iru urtekin, erriko jaietako liburua ari zan idazten. Ume tik Euskalerrian ibiltzea eta erri txikiak festak eta giroa ikustea gustatu zaiola. Euskalerria, errietan, batez ere txikiak, ikusten dala, berak dio. Euskalerrian kas takoa da. Etxean beti argi-

zaia egiten ikusi du. Atxoli aundi aiek txoratua uzten zuten. Antzifako kutsuzko gauzak atsegin zailakio. Ezkondu ere Larraitz ko base- lizan egin zan. Garai berean, gaurko gizona degu; alkar- terako lagun ona, adiskide zifiekkoa. Gaurko goraberen azterketa egiten yayoa da, idazle ta artillari ospetsue- kin artueman aundiak ditu- na. Berak ala dio: "Biarke egunean sartzeko, gaur atzo- koari begiratu bear zaiola".

Gaztetik erdal idazten ar- tean Baroja asko irakurri du, baita Azorin, Unamuno eta abar. Euskalerrian ber- ritz, Oriz, ta Lizardi, Jose Migel Barandiaran eta An- tonio Labayen'ek, etnografi lanetan asteko asko bultza- zuten. Bere lenengo lanak sagardoari ta Zubillaga erre- mendariel buruz eginak di- ra. Gaur, era bat, bide ortan sartu dago. Euskalerrian jende burutsua biltzen du. Usteabe aundiak arkitzen di- tu; askotan lana berdila iza- tegatik teknika berria; bes- tetan euskal kutsu aundi- lanak, bestetan itura on- trako gizonak.

Ikuntza ta etnografi al- detik, idazle onen lanak ga- rantzia ta berexitasun aun- dia daukate. Teknika biltzen aparta degu ta eskularen itz zerrendak ematen dizki-

gu oso aberatsak diranak eta berari esker jasok dau- denak. Gaiferaikan esku la- na oiek eta euskal itza oiek galduko hirake era bat, Zo- ritzarrez, geiegi gertatu zai- guna da. Esku langillak il- tzen dira ta lanarekin ba- tean izenak izkutatzen zai- kigu.

Naparroa asko maita du. ta Juan Garmendia berari- entzun diogu, Euskalerriko eskualki aberatsena. Napar- roa dala, eskulan ezberdi- asko ta langile ugari ditu- lako oraindik. Gaifera Nap-arroa euskal nortasun aun- dikoa biltzen du ta errie- tan Leiza euskal kutsu aun- dienetako beriz.

Gure idazlea langillea da- la, laugarren liburu onek dio. Euskalerriko inauteriet- buruz beste bat argitaratze- ko dabil. Ta emendik gutxi- ra beste bat Araba ko esku- lanekin. Berre lanek edo ar- tikuloak, "Cuadernos de Et- nografia", "Euskotolkore" ta "Diario Vasco" egunka- rian maiz argitaratzen ditu.

Ingandero bere emazteare- kin Euskalerrian barrena ataritzen dala, lanera dioja ta berri askoren jabe itxul- tzen da. Etxera. Orrela, ikas- ten eta ikusten ditu gure eskulagillen lanak. Garai berdinean Euskalerriko ja- kintza aberastutzen du. Pix-

kanaka bide ortatik jarrai- tzen dula, Azkuek erri eler- tiarekin eta Donostiak erri eresierekin egin zutena, Juan Garmendia eskulane- kin egingo du. Orrelako gi- zonei eskerrak, konturatzen gera zefien aberatsak geran eta zefien ederra dan Eus- kalerria. Oar bat pozik egin- gu nioke. Naiz liburuak eus- keraz idatzi, gure euskal al- dizkarietan ere alaxe egin bear luke. Ortarako egokia ta errexia izango litzake es- kularetan ez bakarrik tek- nika biltzea, baita lana oie- buruz esaten dituzten ipuiak esaldiak eta abestiak.

Orrekin naikoa izango lu- ke gure euskal alidizkarietan bere idaztiak agertzeko.

Sendi gutxi, Garmendia- ren bezin euskalduna ta al- kartua. Euskeria Tolosa ka- leko bere etxean ikasi du ta orain arte egiten dute. Aita- ri bere ekinza berexi onan dala k laguntzen diote etxean. Errietara bere emaz- tearekin ataritzen da beti. seme zarrenak marratzen di- tu eskularen tresnak, gaz- tenak bere orarrak egiten dizkie ta aitoniari aspaldiko berri zarrak galdetzen diz- kiote. Euskalduna, langillea, alkartua... orrelako sendi bat arkitzen errexia ai da?

LATXAGA

GURE IKASTOLAK (II)

ELIZ GIZONAK

Eztabaida haundiko gaia izan da beti apezena Euskale- rrian. Hizkuntza aldetik ere berdin da: apezal esker gorde zaigu ustez. Nik esango nuke, apezetan ere denetatik ba dela.

Ezin ukatua da eliz-gizonak euskeraren alde egin duten lan ona. Idazletatik hasirik, Dechepare, Axular; herri iakin- tza maita gaitzen ez usteko saiaku zailkigun guziekin oho- rezko bilduma ederrik jaso genezake.

Honez ez du denak ala jokatu dutenik esan nahi. Haur euskaldunei sariak ematen herriak ondu aztertu ziren eta denetatik ba zen: apez elapak eta hotzak. Aldian behin ezin ereman ahalko gorrotoa euskerari ziotenak ere bai.

Nor diren esan gabe ba da bat gure artean, euskaldun haur bataltzera ereman zitolarik euskeraz bataltzeko es- katu ziotena. Bera euskalduna izanki, ezetz erantzun zien. Ama-ordekoak hirurogei ta lau urte zituen eta erderaz ez zekiela jakinarazi zioten apezari: "Que aprenda" erantzun zion erderaz. Ez zuen han bertan muturreko bat hartu, apez zelako eta elizan zeudelako. Gogo onez emango ziona ba zen han.

Gauza harrigarriak gertatzen dira. Ezagutzen ditut aitorza erderaz egiten duten euskaldun emakume zaharrak. «Padre mio espiritual...» hasiko zaizkizu. Gero hamar aginduk erde- raz. «Ea erretolika guziaren atetik, hitz hauek: —Orl galdetu zaidazu. Orduan hasten da haien aitorza, eta euske- raz. Ez dute erderarik ikasi!

Beraz, gure euskeraren eizako gaitza ez da gaurkoa. Emakume hoiak duela hirurogei bat urte ibiliko ziren dotriña ikasten, eta orduko astakeri hoiak egiten zituzten apez batzuk gure herriarekin.

Hori bai; jaun hoiak lasai gelditzen zaizkigu, bere herrian denek euskara ba dakitela esanez. Artzal ona bere ardak hobeki zaindu nahian.


Orduan eta gaur denetatik ba da elizan zoritxarrez. Ezin dena, batzuegatik denak zerura jaso; eta beste batzuegatik denak infernura erre. Alderdikari izan ohi gera. Bakol- zari bere jokabidearen neurria epaitzea izango litzake jato- ena.

Huts askoren artean, denok gera pekatari, mesede asko egin diote eliz gizonak euskerari. Mediki sendagile, maistu eta sekretario jaunek beste horrenbeste egin ba lute beste kuku batek joko zigun!

Heuren herrian ikastolat dituzten apezal behingoa ardu- retzen hastea eskatuko genieke. Askok esaketea ote?

SAGI

Iruña'n "Erri Meza" Azaroa 25'an



Bein baino gelagotan, gal- degin didate erdeldun bat- zuk: —Zer du zuen ERRI ME- ZA orrek? Lengokuan joan nintzan ikusnialaz, eta zeoro blotza jota utzi nindun. Era ortan Jainkoa goresen duen erriak. —Meza ortan erri osoak esku sartzen bait du— onelako erriak badu espiri- tua, badiu Jainko Berak emandako duaitasun bi ka- lak.

Eglaz: urte aurretan Eliz Ama Deunak eragin digun Liturgi berritze ortan, Euskalerria ez da atzean gelditu; ta ona emen agiri bat.

Oitura eder au Iruña'n ma- mitzen dute mardultzen dija. Orain bi urte, Jesuiten eliza- orain asi zan, eta arrezkero urtean bitan, Pentekoste ta Kristo Errege Egun bezperan egin izan da.

Elizkizun pozgarria bene- tan, eta askori entzun dieten- ez, begieri maliko goxoak erakartzen dizkiena ere bai.

Ekiñaldi ortan, laguntzale guziek duten gogo ta kidea- supa ikustea, neri ederrena egiten zait: Meza emaitzeta- tik asita, abesti paperak gor- tu ta banatzen dituzten muti- ko alalenganañio.

Begira aurretan izan diran xeetasun berri batzuk. Meza emaitzeta, bost: iru apaiz jaun sekularrak, Azpiroz'tar Martin, lendakari egingo zue- na, Lazkoz'tar Pedro ta Sara- legi'tar Kasimiro; ta jesuita, Azkolditar Florentino ta Etxe-

eman-zitzaion. Jardun-ontara- ko an zebiltzen mutiko auk: Etxebeste'tar Iñigo, Flores'tar Koldo, Epaiz'tar Yon, Egi- no'tar ander eta Kuntillio's- tar Mikel; ta guzien zuzenda- ri, Ansa'tar Joan Bizente ta Ayestaran dar Jose Ramon.

Organolariak —Larraz'tar Deñe Andreak— bere on- doan zitun abeslariak: Ote- za'tar Iñaki, Etxebeste'tar Bi- zente, Sagastibelza'tar Isidro Sistiaga'tar Silberio; Zibi- riain'tar Antonia, Flores'tar Uxua ta Agurtzane, ta beste gazteko batzuk.

Jaunartze garain, txistula- riek lagunduta, «Kristo gure Errege» ta «Ogi zerutik» erri osoak gogoz abestu zun; ta Jaunartze ondorean, muti- l dantzariak «Aurrekua» alda-


re baranoan asi ziranen, ua bai zala zoragarri!

Meza sartua bukatuta, «Agur Jaunak» abestekin, erri ta txistulariek aldreko laguntzaleari agur egin zio- ten.

Iruña'n bostgarrena izan da aurtengo Erri Meza; ta be- ren orobidetzat, «Turgel» fo- toleriak kolorezko argazkiak atara ditu.

Ta elizkizun ortan euskal- dunen alkartasuna ikusita, es- kari au egin nion itxaropena aundiz Kristo Erregei: Iru- ña'n eta Euskalerrin osoan, beste euskal arazo guztietan ere, era berdifikio biotz al- kartasun eta irizl zabalez, euskaldun guziok lan egin de- zagu.

AZPIROZ



(Turgel-ek egina).

CALIFORNIA-ko "Eskualherria" aldizkari zaharra (III)

1896 urteko euskal aste- keri aipatu horren berri in- tresgarriekin segituko dugu. Bigarren numeroan GOYTINO zuzendari eta euskaldun letriadunaren bi bertu bi- notz altxazale argitaratzen dira:

ESKUARA!

Oh eskuara maita! azken urte hautan. Hedatzen ari zara mundu izkintetan. Jakintsun handienek, as- ko lekueetan. Zaituzte irakusten beren Eskoletan.

Eta gu zure haurrak, ze- ruaz deitua behar guinuke izan bihotz gabekoak. Behin hastatzeko zure hitz goxoak.

Otoi beira gutizala hortar- rik tinkoak.

Guero berri txar edo kri- me ikaragarri bat aipatuko dugu numero beretik, fun- tsean ikas dezagun nola due- la 80 urte, orai baino airo- kiago azaltzen zuten berri bat, eta gainerako berrietan ikusteko nola asteakari rea- lista bat egin zuten xpeleta- rrak, urrun, Ameriket an.

hango eskualdun geñeñi- zoazkoten gaik emanetz eta merkatalgoz, leiaz, baratz- tako zeren preziozko mintza- zuz. Ez orainko gisan, base- ritarreri bi sos inporta zai- oten gai filosofikoak emanez, gisa ilun batean eta beren nekazalgo. propioen galak biltzuz. Unibersitariok eta intelektualek ere bere salla behar dutela, eta ez beti be- laiz eta ikulluz berba- gien? ados nago; bainan ez paper osoa jakindurizko ar- tikuloz bete.

Emen dezagun orai beste berri arinago bat: —Doña

HERIOTZETO ITSUSIA

«Ioan den larunbate go- zean, Luca SCICCHI, gure hiriko italiako batek hil du tiroka bere andrea eta gu- ro bere burua. Luca ezkon- dua zen duela sei ilabete eta maiz kasalatzan zen (ase- rretzen zen) bere andreak- kin. Egula eraitteko, ardura mozkorra zen.

Ioan den astean, andrea franko izitua zen eta bizpa- hirur gauz etxetik kanpo lo- eguiten zuten, kusina (een- gusina) baten etxean. Larun bate goizean auzoek aditu zuten hirur edo laur tiro eta berehala poliziak ingu- rikatu zuten etxea. Ofizier bat sartu zelarik etxean ha- rritu zen ikusirik kanpo lo- eguiten etxean. Luca SCICCHI aspaldi gure hirian bizi zen; bazuen fortuna eder bat. Aditu du- gu, bainan ezdugu uste egula dela, apez arnegatu bat zela. Pama hori egula baldin bada, miserableak tristeki du hain ongi hasi bizia akabatu. Utz dezagun pasatzeri linoaren justia- zia!.

Emen dezagun orai beste berri arinago bat: —Doña

Eulalia...

Doña Eulalia Espainiako Infanta Estados Unidos-eta- ra yina zena Espainiako Erregunaren partez (Maria Cristina) itzuli da Madrille- rat. Arras satisfos omen da errezebitu dugun manefaz eta estonatu da gure Erre- sumaren (USA) handitasu- naz eta aberatsunaz.

«Ospe aundiko izan zen Eulalia Infanta hori, adimen du argiako, izpiritu libera- la eta bai idazle ona ere, frantzesez. Bere Memoires deitu liburu famatun, Ma- drilen Alfonso XIII bere io- barekin eta haren alpekin bereziki Kortean izaten zi- tuen asarrebideak kontatzen ditu libreaki, gibelasmurik batere gabe; han Madrillen erdideudal izpiritu zuten eta Eulalia oso kurrutia eta idekia zen. GOYTINOK kon- datzen duen bidala hortan prezisiki, konturatu zenean Cuba beregain utzi beharra zela, bakea sartzeko, eta adiarazi Gobernuari (Salteza ohe zela) Madrillen arritu ziren eta aserretu, bainan Eulalia Infanta argi ikusi zuen».

...Beste berri bitxi orai numero beretik: «Aita Sai- duak...»

«Aita saizduak bere gaz- teluan errezebitu du Uztal- laren 8-an Colombia-ko mi- nistroa Erroman eta erran- dio; Amerikak laster Patroin saildu bat izanen du, Cri- stoforo COLOMBO (Colón) izanen da patroin dohatu- hura».

BESTE BERRI ILUNA

«Bi gueriako untzi ingie- sek io dute bat bertzeaz Tri- poliko herriaren aintzinean. Victoria, untzi handiena oso oso urean galduta eta 450

marifel, Amirala-ekin (Al- mirantea-ekin) io dire. Ber- tze untzia Camperdown fran- go kolpatuta da eta estatu txarrean. Ingalaterra guzi a- doluan da. Ito den Almiran- te Lord Tryron deitzen zen.

Beste berri bat. —«Asian kolera fierki ari da, Meca-ko hirian, Errearoa-ren 25-ean, eritasun horrekin 452 presu. na hil dire. Ioan den aste azkenean eritasun hortaz 15 presuna hil dire Touloun- en (Frantzia). F. de LESSEPS. Comte Ferdinand de LES- SEPS, hainbertze eskandale- tan sailatu dena (Canal de Suez ager zutena eta Pana- ma-ko afer zikin haletan ere omen) arras alai da ioan den igandean hilzera zohala uste zuten. Eta mintzatzen ahal eta haur bat bezala da, ezduela uste hau pasatuko diote midikuek».

Auniz anonizio ekartzan ditut Los Angeles-eko aste- kariak: hara bat edo beste: Hotel d'Europe // 459 Bor- garren karrika // San DIE- GO. Cal. // Direkzioe berria (Pascal ETCHERRERY) // Kanbara ederrak eta gar- biak // lategi hobereña // J. P. GOYTINO. Los Angeles Kondadoko Notario Publi- koa. // Testamentak, kon- tratoak, sailpenak eta leguez- ko paper guziak denpora la- burrez eguinak // 230-New High karrika - Los ANGE- LES. // Buena-Vista Hou- se // Ostatu eskualduna // D. Larroñe, nautia 515 - New High karrika // lanari sanoa, arno hauta, ohe onak. Esku- aldunen bilkura, // Hotel des Pyrenees // J. Ordoqui eta semea— Hiriko eskual- dunt etxe zaharrena // Erre- bota, Ostatura, Kantina, He- rritarrak beti ontsa trata- tuak dire.

A. APAT-ECHEBARRNE

DIARIO DE NAVARRA-k EGUBERRI ETA URTEBE- RRI alai eta zoriontsuak "Euskal Herri" - ko seme guziei opa dizkiet

AXULAR SARIA

AURTZO BAT BELEN-EN

Borda batean bizi ziran aur bat bere aita eta aitatzekin. Aitatzik erratan zuen aurtzo bat sortiko zela Belen-go he- rrian eta mundu guzira salbatiko zuela. Zer zoriona nerezat aurtzo hori nere begiekin ikus banzake. Zion aitatzik hoiak.

Egun batean aita goan zan herrira eta botika batean esan zioten sortu zela aur bat eta izena zuela Jesus eta aunitz yende zaiela aurtzo honen ikusiera. Gure aitatzik, aita eta illobera beren erregaluk hartu, bildotsa, gasna eta gaztanbera; eta abiatu ziran bafian ezin zuten arpatu. Bertze artzain bat arpatu zuten eta galde in zioten:

—Non sortu da Jesus aurra?

Eta harek esan zion nontzu zan. Allagatu ziran eta arpatu zuten aintbertze yende eta hoiartian hiru errege. Gure bordariak lotsatzen ziran zeren ziran pobreaki beztia, bafian halarre aurtzoa kusi zutelaik yari ziran haren aintzian eta adonatu zuten. Gure mutikoak ikusi zutelaik Jesus aurra otzak zegola, bere sofeko txaketa kendu eta aurtzoari patu zion gahian eta aurtzoak irri gorri bat egin zion eta gure aitatzik begietarik bi negar erori zikizkizion eta hiruk pozez beterik itzuli ziran beren bordara.

MERTXE MIGELTORENA

AMAYUR. 11 urte.

MUSU BAT JESUS AURRARI

Eguarriak dira, Herri txiki batean oitura zuten egun hoietako Belen-go estalpea, egurartian aur sortu berri bate- kin bafian urte hartan etzen inor sortu. Txikia zen herri apez triste zagon etzakielakot zer paratu. Guan zan herri aundi batera erostera denda batean sarturik erosi zuen Jesus aur bat pollieta eta guan zen arron konten. Hasi zen patzen estalpea elizan. Guan zitzaion lurrera eta txiki zun puska baño susik gelditu zen eta etzun paratu beriz. Tri- tetuik guan zen pasayetara eta oarturik denda batean luyau bazela txokolatezko Jesus aur txiki bat; sartu zen eta erosi zuen bafian txokolatezko baizen elizako argien berotasunekin urtikio zela beldur zen eta galdin zuen dendako gizonari. Hunek ezetz erran zion arras gogorra zela, orduen apezak konten gelditu zen eta paratu zuen estalpean.

Mezan ondarrean pensatzen zuen apezak oartuko zirela txokolatezko zela.

—Ba eztu inport!

Meza laguntzaleak harturik Jesus aurra hasi zuen ado- razioa. Yendeak musu ematean oartu ziren txokolatezko zela. Apeza gero guan zen kusteria nola utzi zuten Jesus aurra eta arpatu zuen eskuko beatz aundia bertzerik.

MARIA LUISA IRAGI. ALMANDOZTARRA

KONZEZIONISTEN ESKOLAKOA

ELIZONDO. 12 urte.